

# Aleman Arranoak inguruka eta aztaparka Beloke-ko gainean

(The German Eagle scouts around and shows its talons in Beloc)

Diharce, Xabier "Iratzeder"  
Monastère Notre-Dame de Belloc  
64240 Urt

BIBLID [1137-4454 (1997), 14; 169-178]

---

*Baiona-tik hogei kilometretan da Beloke-ko fraidetea: eta, Espainia-ko mugatik hogoi kilometretan ere. Mila zortzi ehun eta hirurogoita hamargarren urtetik hunat, guziera ongi-etorri egina izan zaiote hor, bereziki mendiz bertzaldetik etorri iheslariari. Joanden mendean, Karlista gazteak etorri zitzaizkion aterbe-keta: hetarik badire hemen fraidetuak, xahartuak eta saildutuak. Mende huntako hogei-ta hamaseian ere, hogoi-ta hamar bat abertzale (apez ala gazte) izan dire gure artean egonak, Alemanak 40an agertu arte. Berrogoi-ta hiruko abendoaeren 14-an, Baiona-ko Apezpikua zendu ondoko biharamunagoan, aita Abadea eta bertze bi fraide Alemanek eramanak izan dire preso, lehenik hurbilenekorat, gero Bordale-ko fama izarrekorat. Hortik igorria izan da aita Abade Jean-Gabriel Hondet, aita Gregoire Joannatey-ekin, Buckenwald-erat eta Dachau-erat. Berrogoi-ta bortzeko ekaineen, handik itzuli ziren, bizirik baina xaharturik. Soldado deitu fraideak ala Alemania-n presoner zaudenak eta Lazkao-rat mendiz joan gazteak, denak itzuli ziren: bakar bat da, herriratu orduko, ezindurik hila: aita Luis Idiart kanboarra. Beloke-ko elgargoa lotu da berriz bere bizitze bereziari, bere lan ixilari eta goiz-arratseko salmo kantatzeari.*

*Giltz-Hitzak: II. Mundu Gerra. Okupazio alemana Euskal Herrian. Euskal Eliza.*

*La abadía de Belloc se encuentra a veinte kilómetros de Bayona, y también a unos veinte kilómetros de la frontera española. Desde el año mil ochocientos setenta hasta nuestros días, todo el mundo ha sido bienvenido en esta casa, particularmente los fugitivos procedentes del otro lado de la muga. Allí acudieron los jóvenes carlistas del siglo pasado en búsqueda de refugio; entre ellos hubo quien aquí mismo se hizo fraile, envejeció y murió en olor de santidad. Durante el año 36 de nuestro siglo también fueron acogidos aquí unos treinta abertzales (entre curas y jóvenes), hasta que llegaron los alemanes el año cuarenta. El 14 de diciembre del 43, a los dos días de la muerte del Obispo de Bayona, los alemanes se llevaron preso al padre Abad y a otros dos frailes más, primero a la cárcel más próxima y más tarde a la tristemente célebre cárcel de Burdeos. De allí enviaron al padre Abad Jean-Gabriel Hondet junto con el padre Gregoire Joannatey a los campos de concentración de Buchenwald y Dachau. En junio del 45 volvieron de allí, con vida pero muy envejecidos. Todos los frailes volvieron, tanto los llamados al servicio militar como los que estaban presos en Alemania o los que habían huido a Lazkao por monte: solamente uno murió, el padre Luis Idiart, natural de Cambo, quien murió al poco de regresar a su pueblo. La comunidad de Belloc una vez más se recogió en su modo de vida propio, el trabajo callado y el canto matutino y vespertino de los salmos.*

*Palabras Clave: II Guerra Mundial. Ocupación alemana en el País Vasco. Iglesia vasca.*

*Le monastère de Belloc, situé à 20 km de Bayonne et 20 km de la frontière espagnole, a toujours été, depuis sa fondation en 1875, un lieu d'accueil et de passage. Dès le siècle dernier, il accueillait les jeunes Carlistes traversant la frontière. Plusieurs d'entre eux devinrent de saints frères sonvers de Belloc. En 1936, une trentaine de prêtres et de jeunes furent accueillis, jusqu'à l'arrivée des Allemands en 1940. Le 14 décembre 1943, surlendemain du décès de l'Evêque de Bayonne, le Père Abbé et deux autres moines étaient arrêtés, incarcérés à la prison de Bayonne, puis le 14 janvier 44 transférés au Fort du Hâ de Bordeaux. Ils étaient accusés par la Gestapo d'avoir accueilli et facilité le passage de jeunes insoumis. De là, le P. Abbé Jean-Gabriel Hondet et le P. Grégoire Joannatey furent déportés à Buckenwald et Dachau. Au début de juin 1945, ils en revinrent vivants mais vieilliss. Tous les moines qui avaient été mobilisés et prisonniers ou les jeunes qui s'étaient réfugiés au monastère de Laccano (Guipúzcoa) rentrèrent aussi. La Communauté monastique reconstituée reprit sa vie et ses activités scandées par le chant des psaumes.*

*Mots Clés: II Guerre Mondiale. Occupation allemande dans le Pays Basque. Eglise Basque.*

1. "Heldu zaizkigun kanpotarri egin behar zaiote, Kristori bezala, ongi-etorria; erran behar dauku-eta berak: Kanpotarra nintzen eta zabaldu dautzue atea." Hala dio, seigarren mendetik hunat, *San Benoat*-en Erregeak edo fraideen araudiak.

*Europa* guzian barna, aspaldiko mendetan, beilariak eta errumesak bidez bide zabilta-larik, bazuten fraidetxetan aterbe eta laguntza.

Ez ditu *Beloke*-ko fraidetxeak ehun eta hogoi urte baizik; bainan, jadanik joanden mendean, mendiz bertzaldetik etorri zitzaizkion *Naparroa*-ko eta *Gipuzkoa*-ko Karlista beroak ihesi. Fede handikoak ziren eta hetarik batzu hemen fraidetu zitzaizkigun; heien artean aipatuena eta beharba sailduena: *Mixel Zugaramurdi Aranez*-koa.

- Mende huntako hogoi-ta hamaseian, etorri zaizkigu hogoi-ta hamar Gipuzko-Bizkaitar aterbe eske eta lan-otoitzetan gure kide. Hauk ere bihotz kartsukoak; bainan ez da hoitan fraidetu denik.

- Berrogoi-ta batean ere *Parise* aldeko edo bertze nunbeitoko gazteak hasi zaizkigu ixilka agertzen, *Espainia*-n barna, *Algeria*-n gudukatzerat joan nahiak. Bazen *Ahurti*-ko plazatik ateratzean, marrazkitu ezkila bat fraidetxerako bidea erakusten zuena.

Iluntzetan agertzen ziren komentuko aterat; eta indarrak doi bat berriturik, bazoatzin *Hazparneko* larretan gaindi, kontrabandist baten ganat, hura lagun mendiz haindirat joateko.

2. Kanpotarrez arta zaukan aita *Ildefonse*-k bazakien xeheki horren berri; aita Abadeak bai eta aita Priorak, guti edo aski. Nik ez nakien hortaz deusik; bi urte hartan fraidetu, egun oroz bezala, banindagon bederatzietako Meza-nausian eta ikusi nuen aita Abadea, norbeitik deiturik, ateratzen.

Elizkizuna bururatzean, hara bere gelatik ari zela bere kanporako jauntziekin jausten. Gibelean bazuen, guri behaka zagon, gizontto bat eskua sakelan zaukana; eskuan berriz, –gero jakin duguna–, jenden prestu-araztekoa...

- *Baiona*-ko Apezpikua, bere goizeko Mezarat abian zelarik abendoaren 12-an hil eta, biharamunagoan *Beloke*-n ziren beraz "*Gestapo*"-koak. Ba omen zuten *Mgr Van Steenbergh*-en halako beldur bat: Aleman mintzaira eta pentsa-moldeak errotik jakinki-eta, bazuen harek heien azpiko itzuli-mitzullien berri. Hura zendu orduko, beren aztaparra luzatu zuten *koman-dantur*-reko aintzindariak; eta, *Beloke*-n buru ziren hiru aitak presondegirat bildu.

- Huna, aita *Gregoirek* idatziaren arabera, goiz hartan gertatu:

"Leihotik behako bat jeikitzean botarik, segur nintzen aro ederra izanen ginuela eta egun hartan egitekoak, artoski asmatu nituen bezala, iraganen zitzaizkitala, goiz-irian Donostiri-rat abiatuko nintzen, *Adorazione* aintzineko predikari. Arratsaldean haurren kofesioak izanen nituen eta iluntzean herriko jenderi mintzaldia. Jaun Erretorak igurikatzen ninduen herri hartara gabe, Isturitze-n geldituko nintzen, arrebaren etxean bazkaltzeko.

Ez ziren, haatik, egun hartan gertatu beharrak gertatu..."

3. "Bederatzi orenetan bilduak ziren fraideak oro Meza-nausirako; nik aldiz ene gosaria hurrupatu-eta, hasi nitzaizkon ene pirripitari arrodak aireztatzen. Eta horra beribila bat entzun nuela hurbiltzen ari, bai eta apur baten buruan, ateko xilintxaren soinua.

Ari naiz ni aintzinat ene lanean. Berriz ere hasten da kanpoko xilintxa dilindaka. Atea zabaltzen dut: jaun xapeldun bat dut hor agurka, uruntxago bertze gizon bat eta otozaina:

*aita Abadea mintzatu nahi zutela. Jaun xapelduna sar-arazi nuen, aita Abadea Meza-burura-tzean etor-araziko nuela. "Ongi." erran zautan eta gero: "Ahal bezein laster joan beharra naiz: errozu berandu gabe etortzeko."*

- *Joan nintzen beraz elizaraino eta hortik ene gelarat. Apur baten buruan, hor nuen aita Abadea: "Ez dakit soberarik zer gertatzen den; nahi zaituzte zu ere ikusi." "Badakite ene izena?" - "Ba."*

*Banoa beraz harekin jaun horien ganat; xapeldun harek erran zaukun orduan: "Parise-ko Gestapo-ak igorriak gaitu; etor gurekin Baiona-rat, zuetaz argitasun batzuen emaitako." Nik orduan: "Ez bide da luze izanen; Donostiri-rat joan beharra naiz, arrats huntan." - "Ez kexa: Baiona ez da hain urrun eta badugu otoa."*

- *Kanpo alde joanik abiatzera goazi, nun eta jaun horietarik batek, paper bati beha, dion: "Mintzatu beharra dugu ere: aita Ildefonso." eta, doi bat durduzatu ondoan, "Nun da?". Hain xuxen, horra hor dela. Gurekin ere eremana da.*

*Etxe aintzineko haitzondoteraik ateratzen ginen eta, gutarik batek ohart-arazten gaitu; hirirat joatekotan aldatu beharrak ginela. Doi bat dudaka egon ondoan, uzten gaituzte gelaraino joaterat, hiru Aleman-etarik bana lagun, haatik.*

*Azkenean gu hiruak oto gibelean sartu-eta abiatzen gare. Norat ote? Xuxen xuxena: Baiona-ko zubi handian barna, presondegirat."*

- *Nintzen fraide gaztearen harritzea, eguerditan jakin dutanean, Baiona-n preso ginituela: Abadea (aita Jean-Gabriel Hondet Hendaiakoa), Priora (aita Grégoire Joannatey Isturitzekoa) eta aita Ildefonse Darricau Labatut-ekoa. Hirugarren hau gizon argi eta jakintsua; bere gain zauzkan kanpotarrekilako egitekoak eta bazakiken harek bertzek ez jakin bai urrungo eta hurbileko gauza frango.*

#### 4. Huna-eta harek berak geroztik idatziak:

*"Ibiliai zitzaizkun 42-an, etxe barnea ikusten, Alemanak. Bazuketen gure gain huntan finkatzeko gogoa; bainan bizitegiak izigarri xahar eta itxuragabeak iduritu zitzaizkoten (Erran behar da toki zahartuenetan gaindi ibilaraziak izan zirela). Fraiden gelak itxura gabe-koak atxeman zituzten; eta, berek ziotenaz, aintzindari mutilentzat ere ez on."*

*Horiek hola, begitan zaukan Gestapo-ak Beloke-ko fraidetxea. Lehen miatze batean hartu zituen polizia-k, Abadearen gelan aurkitu paper guziak (eta Parise-ko Ministerio-xoko batean lo omen daude). Ez zen hoitarik deus hoben itzalik agertu; bainan, ondoko urtean, Alemaniari saldu batek eman ziozkaten bila zabiltzan argitasunak.*

- *43-ko lehen astetarik hasiz, aterbe emana izan zaiote Espainia-ko mugarat abian zireneri, nahiz-eta etsaien ganik ihes egin eta heieri Algeria-tk oldartu.*

*Baziren hoitan alde eta pentsa-molde guzietakoak: Libratzaileen armadarat joan nahi soldado eta aintzindariak, STO bortxazko lanetarik ihesi joanak, Aleman-zale Milizakoek hil beldur komunistak, Juduak edo Ingles airezkoetarik eroriak...*

*Emaiten zitzaioten aterbe eta, multzo aski handia bildu orduko, igorriak ziren Hazparne-ko larretan barna mendi alde; handik, gero, kontrabandist-bide xendretan sarturik Espainiako mugaraino.*

- *Beloke-ko bortz fraide gazte ere, Alemania-rat bortxazko langile joateko orde, Lazkano-ko gipuzkoar fraidetxerat joan ziren ixilka.*

Hetarik bat nintzen. Huna nere orduko orroitzapenak: "Bertze lau gazteak berehala deituak izan ziren: ez zen dudarik ni ere deituko nindutela; aintzinetik hobe nuela itzaltzea, 43-ko utzailaren 15 -ean abiatu nintzen, *Baigorri* alderako treinarat iganik.

Mendi eskualde hoitan ibiltzea ez zen haizu, paper berezirik gabe.

Bizpahiru egun aintzinago, hitz bat igorri nuen Aldudeko Berain-Bordarat aita *Adrien Gaxitegui*ri. Harek zituen bertzeak, etxeko mendi xendretarik, bederazka iragan-araziak.

Uste ginuen etxean zela oraino. Bezperan joana zen alde bat; Arraiotz-en ziteken, *Kiriko* osobaren etxean.

Zimiko bat egin ziketen Berain-Bordakoeri nere hitza eskuratzeak. Halere, gertatuko direnak gerta ditela, ez zuten ni mendiz bertzalderat laguntzea dudatu. *Pilale*, anai zaharrena, haurridez kargatua zelakotz, libratu berria zen Alemaniatik. Harek lagunduko ninduela erabaki zuten, Alduderaino heltzen banintz segurik.

- Alemanak ez zaizkitan ohart, fraidetu-aintzineko apez-jauntzia eta xapela eman nituen soinean. Eskuan ez nuen otoitz-liburua baizik; hitzartuak ginen, zerbeit gisaz igorriko zauzki-tetala behar nituen puskak *Lazkaorat*.

Orzaitze-rat heltzean, treinatik kanpo-alderat atera nuen burua; eta, beroegi izanez, xapela kendu. Denek ikusi-ahal zuten nere orduko fraide-koroa. Haatik, nihaur oharturik, lastersko jauntzi nuen berriz xapela.

– Baigorriin, Alduderako otobuza hartu nuen. Aleman bat banuen eskuin, bertze bat ezker, aintzinean bertze bat eta bertze bat oraino gibelean. Ni berriz, liburu bat eskutan, ari nintzen apez-otoitzetan.

Alduderat heltzean, Ospitalarren etxerat joan nintzen: nundik ote zen Berain-Bordako bidea. *Anixito* zaharrak erran zautan beha egoiteko eta, Berain-Bordako neska ttipiena eskolatik ateratzen baitzen, harek etxeraino lagunduko ninduela.

- Erran bezala, ttaka-ttaka abiatu ginen neska ttipia (geroko "Mentako etxekandrea") eta ni.

Bidean kurutzatu ginituen bi aleman soldado, muga zaintzen zabiltzanak. Agur egin ginioten eta aintzinat joan, Berain-Bordaraino.

Han ikasi nuen: bezperan joana zela aita *Adrien*, nere hitza eskuratu ere gabe. Bainan ez zautaten deus ele kexurik atera...

– Goizeko lauetan, ilargi gabeko gau beltz baino beltzagoan, abiatu nintzen mendiz, *Pilale*-ren ondotik. Harek xendrak ongi zazkien eta ilunpez ibiltzea usatua zen. Noiz nahi dei egiten nion ahapetik: "Nun zira?"

Ez ginuen Alemanik ikusi, ez eta Alemanek gu. Goiz aldean Arraiotz-en ginen, *Kiriko* arbaso arpegi ederrekoaren etxean. Aita *Adrien*-en harritzea, gu ikustean! Besoak zabaldu zauzkitan; eta, bazkal-ondoan, ferrocarril-erat igan ginen.

Belokeko bortz gazteak bilduak ginen, beraz, aratseko; eta, gu hor izanez, nobiziadoa edo fraidegaitgia izan zuen *Lazkao*-k, orduz geroztik.

Aita *Alberto Begiriztain*, etxeko nausiak, bihotz zabaleko ongi-etorria egin zaukun; eta bere gain hartu zuen, polizaren aintzinean, gure zaintzea. Hola izan zen salbatua, urte beltz hoitan, *Beloke*-ren geroa.

– Astean behin, behar ginion polizari begitartea erakutsi.

Hain xuxen, ilabete baten buruan, jakin-arazten du Beloketik aita Priorak: bortxazko lane-rat joateetik libratua naizela; beraz, lehen bai lehen sartzeko.

Menditik etorria, nola itzul nindake Hendaiako zubitik? Bertzalde, ondoko astean ez banintz poliziarat agertzen, zer eginen zioten Lazkaoko nausiari eta Frantziatik etorri bertze laueri?

Aita *Migel*, mintzatzaille ederra, Donostiako Gobernadorearen ganat igorri zuten. Harek: ez zuela joateko baimenik emaiten ahal; bainan polizia mugitzen bazen, geldiaraziko zuela.

Hitzemanak hitzeman, zenbeit buru-hauste eman ziozkan halere aita *Albertori* nere joateak.

– Aita *Adrien*-ekin *Irun*-en hartu nuen Elizondorainoko otobuza.

Hain bainintzen itzultzeaz loriatua, otobuz gaineko jar alkietan eman nintzen haren ondolan; eta, gorago izaiteko oraino, nere paketaren gainean.

Gu *Irun*-alderat ginen itzuliak eta otobuza zirurikan zoan Elizondorat buruz. Bet-betan, ez dakit zerk ukur-arazten nau, aita *Adrien*-ek oihu egiten duelarik: "Gizonaren gizona!"

Zubi baten azpitik iraganak ginen; eta, Jainkoak daki zer mirakuiluz, ez zitzaitan burua kolpatu edo... moztu.

7. Irailaren zortzia zen eta biharamunean *Beloke*-n nintzen.

Ikusi huen beraz, abendoaren 14-an, aita Abadea, (aita Piora eta aita Ildefonsekin), *Baiona*-ko presondegirat joaten.

Buruzagirik gabe ginauden. Aita *Marzel Etcheverry Senpere*-koak denen ibil-arazteko bere burua xahartuegi baitzaukan, eskubideak oro eman ziozkan aita *Eugène Joie Sordekoari*.

– Huna orduko harat-hunatak nola iragan ziren, aita Etienne *Lerchundi* ethezain eta diruzainaren orroitzapenen arabera:

*"Gure aitak eremanak izan ziren eguneko biharamunean, joan naiz aita Eugène-kin Baiona-ko Komandantur-reraino: "Nahi ginuke Buruzagia ikusi."*

Armadun batek bertze armadun baten ganat eremaiten gaitu; eta hunek sar-arazten gaitu, bi aleman aintzindari zauden barne batean. Galdetu nuen: *"Hiru aita eraman dituzue: nungo presondegian daude?"* Heiek: *"Ez dezakegu erran."* Guk orduan aintzinat: *"Behar giniozkate estalkiak hel-arazi bai-eta eskas lituzketen guziak."*

Aita Abadearen gibeletik jautsi harek erran daut: *"Ikusi ditugu zuen gelak. Orai dagotzin tokia, zuen bizitegiaren hein berekoa da."*

– Hasi zitzaikun orduan galde batzu egiten: *"Ongi etorri egiten diozute beti, agertzen diren guzieren?"*

– *"Hori dio gure Erreglak: behar dela ongi-etorri egin eta jaterat eman."* Aita Eugène gizon bolborak orduan: *"Erranen diotegu: zoazte bistatik eta urrunago joan."*

Horiek hola, eskaini zauzkuten guk segur ez onartu zigarretak eta ttotta-basoño bana. Entzun-arazi zaukuten, haatik, beren *"katiximatik"* apur bat: *"Behar duzue, zuen Erlisionearen arabera, nausien alderako jauspen eta onespen. Behar dituzue bai kanpotarrak onartu, bainan heien "nor-nungo" paperak galdetu eta guri jakin-arazi."*

Holakotan hitz emaita edo deus emaita berdin denaz geroz: "*Baietz.*" diogu eta: "*Joan gaitzek?*"

Lehen armadunaren eta bigarrenaren aintzinetik iragan ginen... Azkenean kanpoan gaude, etsaiaren saretan hoin ezaxolki sarturik, harrituak."

– Gertakariak diren bezein izigarri izanik ere, badute maiz irringarririk zerbait: aita *Eugène* baino nahiagoko baitzuten batzuek aita *Marzel* nausi, Pizten zen hura eta bertzea itzaltzen... Baina laster presondegitik etorri zen paperño bat: "Aita *Eugène* izendatzen dut denen Buru eta aita *Joseph* fraidegaien Moldatzaile."

8. Xeheki kondatu ditu aita *Gregoire*-k presondegian jasanak, Belokekoen geroak emaiten ziozkan beldurraz eta minaz bertzalde.

*"Abendoaren 29-an deitu ninduten; eta Beloke-ko atean ikusi izan nuen jaun xapeldunaren aintzinean aurkitu nintzen. Sekulako galdeak egin zauzkitan, ezti gozoz beteko mintzo batekin.*

*Biharamunean berriz haste; eta, hogoi-ta hamekan, erakutsi zauzkitan nik idatzi eskutitz andana bat: batzu izenpetuak ziren, bertze batzu ez; ez nezaken uka: denak eneak ziren eta Alemanek gaztigatuen aldekoak.*

*Luzea izan zen gure hizketa, baina ele gaixtorik gabekoa. Joaterakoan ausartzen naiz, beraz, erraiterat: "Bihar, urteko lehen eguna dugu: eginen dautzut eskaintza baten galdea..." –"Zer ote?" –"Behar zinuek ene partez "Le Livre" liburuntegirat joan eta horko bi andereri enetzat galdetu: Leon apezaren Jesu-Kristoren Imitazionea. Urririk emanen dautzute eta gogotik."*

*Ene harritzea biharamunean, soldado batek ekarri dautanean paketaño bat: bezperan galdetua nuen liburua.*

– *Arrats hartan laugarren aldikotz deitua izan nintzen. Liburuentzat nik eskerrak eman orduko, ohartu nintzen tzarrean zela ene gizona. Erran zautan berak zergatik: jakin berria zuen Berlin-eko hiriarren gainean, ehun bat ingles-airezko ibili zirela, bazter guziak xehatzen. Nik beharko nuen, naski, haren hasarrea jasan.*

*Galdeak egin zauzkitan berehala, Beloke-ren Alemanen-kontrako joko ixilez. Ohartu nintzen gauza frango bazakiela. Nundik nola zakizkan hoik oro? Alemanekin adiskidetu batzuek salduak izan ote ginen edo mendiz iragan ala iragan-arazle harrapatu batzuek gehiegi mintzatuz salatuak?"*

– Bere presoner-gelan tirabirakatua zagon aita *Abadea*: ez ote dire, guk lagunduak edo bertze batzu, gehiegi mintzatuko? Ez ote dituzte Alemanek, beldurturik eta hasarreturik, fraide guziak bortxazko lanetarat igorriko?

– Arratseko bederatzietan, nehoiz ezbezalako ohidura bat sortu zen *Baiona*-ko presondegian, Zaintzaleak joanak zirenean afaltzerat; gure hiru aitek orduan, bai eta bertze frangok ere, "*Salve Regina*" kantatzen zuten.

9. Urtarrilaren 14-an, gure ate guziak S.S. soldadoek zabalduak dire: gure puskak bildurik eta ginauden tokia garbiturik, joan behar dugula. Hitzaldi labur bat egiten dauku aintzindariak: "*Achtung! Kasu! ihesi abiatzen bazaizte pan! pan!.. Kaput!*". Hendaia-Bordaleko burdin-biderat eremaiten gaituzte eta handik fama iluneko *Fort du Hâ*-raino.

Hiru egunen buruan, aita *Abadea* eta aita *Grégoire Compiègne*-ko alderat igorriak ziren; handik, berriz, *Buchenwald* eta *Dachau*-ko herio-toki lazgarrietarat.

– Aita *Ideldonse*, aldiz, hiru ilabetez egon zen *"Fort du Hà"* hortan, fede eta jendetasun gutiko lagun batzuekin. Errotik ikasi ahal izan zuen: zorriek gorputzean goiti joateko duten usaia.

Goiz guziz emaiten zituen: kanporat abiatzeko soinekoak. Zer ari ote zen hola, galdezka zagozkion presoner –laguneri hau zion beti: *"Banoa egun hemendik"*. Nardatzen zituen azke-nean; bainan egun batez, hiru ilabeteren buruan haatik, hori egiazki gertatu da; beso luzeko adiskide batzueri esker, dudarik gabe. Eta ikusi dute kanporat ateratzen.

Joan da berehala Eliza-nausiraino eta, aspadiko partez, Meza emaiten hasi. Pasionearen igande ondoko asteazkena zen; eta, egun hartan, 17-garren salmotik zauzkan Aldareko Liburuak lehen hitzak:

*"Liberator meus..."*

– Beloke-rat itzulirik, bere karguaz, bere kezkez, libratu du aita *Eugène* xaharra; eta nau-sigoa bere gain hartu du.

Ekainaren 24-an, aita Abadearen besta-eguna izaki eta, aipatu du: harekin presonde-gian izan duen azken hizketa.

Ordukotz Alemania-rat abiatu beharra baitzen, erran diot: *"Badaukat: hauk guziak itzuli-ko direla gure onerako eta fraidetxe guziaren onerako."* Harek orduan, bihotz-indar guziaz: *"Bai, sinesten dut."*

– Eta, azken hitza baitu Sinesteak, hemezortzi hilabeten buruan, zer-nahi jasanik haatik, bizirik itzuli da, 45-eko ekainaren 6-an.

Biharamunagoan Ama Beloke-koaren besta baiginuen, esker onezko Meza eman zuen aita Abadeak, bai bere izenean, bai aita *Gregoire* eta *Idelfons*-en izenean.

Bat bertzearen ondotik, berriz etorri zaizkigu: gerlarat joan edo presoner egon hamazaz-piak; aita Luis *Idiart* Kanboarra, haatik, ezindua, pausatu zitzaikun laster. Sartu ziren ere *lazkano*-n ginituen lauak eta handik *Inglaterra*-raino joana zen aita *Bernardin Darmandrail* ere.

10. Alemanek ebats beldurrez, gordeak izan ziren *San Benoat*-en erlaki fama handikoak. Bakea itzuli orduko, ohore handitan *St Benoît-sur-Loire*-ko elizaraino heien berriz eremaiteko, Fraidetxe bakoitxetik igorria izan zen fraide bat edo bertze.

Hiru ginen *Beloke*-tik harat joanak; eta, uztailaren 14-an gure-ganatu zitzaikun aita Abadea, *St Gemain-des-Prés*-ko elizan. Meza bururatzean, erran zion erretorak:

*"Enekin etorri behar duzu, gerlari ohien bazkarirat. Fedegabeak dire gehienak; on iza-nen dute zu entzutea."* Gogotik hartu zuten jaun horiek beren bazkari handirat eta gero, baz-kal ondoan, kadira baten gainean xutik ezarri: ea zer aterako zuen Aleman tzar horien kontra.

– Abadea orduan hasi zitzaioten mintzatzen, hunela bururatu: *"Alemanak maita; izan heien alderat anaitasun eta amodio!"*

Harrituak gelditu ziren gerlari-ohi beldurgabeak; eta, hain izan ziren haren solasez unki-tuak, nun hasi baitzizaizkon, beren moltsa idekirik, hogoi, berrogoi edo ehun liberako bota-zen. Eta harek, eskuak zeru alde altxatu: *"Bainan zertako ditut zuen diru hoik guziak?"*

\* \* \*

Berrogoi-ta hamar urte orai, joan direla, alde-bat joan, *etsai arranoak*: eta etorri zaizkigu-la, anaitasun egun argiekin, *bake usoak*.

Geroari buruz, goazen beraz esker-kantuz!

\*\*\*

Le 14 décembre 1943, trois agents de la Gestapo montaient au monastère de *Belloc* et demandaient au P. Abbé *Jean-Gabriel Hondet*, au P. Prieur *Grégoire Joannatey* et au P. Hôtelier *Ildefonse Darricau*

de venir avec eux à Bayonne pour un contrôle.

En fait, ils étaient directement incarcérés à la "Villa Chagrin", puis au "Fort du Hâ" et deux d'entre eux déportés à Buckenwald et Dachau.

Qu'avaient-ils donc fait? Tout le Pays le sut lorsque huit ans plus tard, le 15 novembre 1951,

M. *de Chevigné*, Secrétaire d'Etat à la guerre, vint avec un détachement militaire; et, au lieu même où se firent les arrestations, il remit des décorations et une citation d'un style un peu grandiloquent mais vrais:

<p style="text-align:center"><b>RÉPUBLIQUE FRANÇAISE</b></p> <hr/> <p style="text-align:center"><b>Guerre 1939-1945</b></p> <hr/> <p style="text-align:center"><b>CITATION</b></p> <hr/> <p style="text-align:center"><u>DECISION N° 44</u></p> <p style="text-align:center">LE SECRÉTAIRE D'ETAT A LA GUERRE, cite :</p> <p style="text-align:center"><u>A L'ORDRE DU CORPS D'ARMÉE</u></p> <p style="text-align:center"><u>Abbaye NOTRE-DAME de BELLOC (URT) Basses-Pyrénées -</u></p> <p>"L'Abbaye bénédictine Notre-Dame de Belloc, fut sous l'occupation l'un des foyers les plus ardents de la résistance basque. En particulier, en 1943, sous l'autorité du Révérendissime Père Abbé et l'impulsion de plusieurs de ses religieux, l'abbaye de Belloc organisa le passage clandestin en Espagne d'environ 1.000 aviateurs alliés, jeunes gens, spécialistes et officiers français désireux de rejoindre les Forces Alliées ou les Forces Françaises libres.</p> <p>"Le 14 Décembre 1943, Les trois supérieurs furent arrêtés par les services allemands; deux d'entre eux furent déportés à Buchenwald et à Dachau où leurs conseils vivifiants, leur patience courageuse, leur abnégation constante et leur foi ardente en firent les plus fermes soutiens de leurs camarades et l'exemple rayonnant des plus nobles vertus chrétiennes et françaises."</p> <p>CETTE CITATION COMPORTE L'ATTRIBUTION DE LA CROIX DE GUERRE AVEC ÉTOILE DE VERMEIL.</p> <p style="text-align:right">Fait à PARIS, le 31 Octobre 1951</p> <p style="text-align:right"><i>Ed. Chevigné</i></p>
--



*En guise de conclusion*, relisons quelques lignes du témoignage paru dans le Bulletin Diocésain du 11 octobre dernier et décrivant l'arrivée à *Dachau*:

"... Dans la journée, l'ordre est venu de nous faire passer à la désinfection: éliminer les poux typhiques..."

Je me retrouve dans l'immense salle de désinfection (au moins 50 mètres de long) avec le Père *Hondet*, abbé de Belloc, et une foule d'autres déportés.

Nos vêtements sont à la désinfection dans les étuves. Nous sommes nus.

Pour lutter contre le froid, nous parcourons, d'un bout à l'autre, la salle des douches ... (cloître d'un nouveau genre).

(...) Pendant que nous déambulons, échangeons, deux "jeunes" détenus avancent vers nous, tout aussi nus que nous...

Je connais l'un d'eux, c'est un bénédictin allemand. (Le second l'est aussi).

Ils s'approchent, se mettent à genoux aux pieds du Père Abbé, lui prennent la main, comme s'ils voyaient l'anneau abbatial, embrassant sa main et lui demandant sa bénédiction... qu'il leur donne... dans ce cadre... "nu"... tous les quatre nus.

\* \* \*

Et R. *Pannier*, dans "Jusqu'au Martyre" (P. 236), de conclure: "Oui: au-delà des apparences, savoir reconnaître la grandeur de l'homme.

Jamais de ma vie je ne l'ai ressentie à ce point, avec cette force."

Joanak dire joanak

arranoak,

daudela gurekin

eta gure artean:

bake-usoak;